

Donostiako Sustapenak ofizial egin du COTEC Fundazioarekin bat egiten duela

Marisol Garmendia, Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia, Fundazioaren Patronatuaren urteko bileran izan zen, eta bertan baieztatu zen Donostia 100 kide baino gehiago dituen sarean sartuko zela

Berrikuntza sustatzea, garapen ekonomiko eta sozialaren eragile gisa da irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatu honen egitekoa

Donostia, Malagarekin, Gijonekin, Valladolidekin eta Madrilekin batera, COTEC Fundazioaren parte diren hiri bakanetako bat da. Gipuzkoako hiriburua Fundazioan sartzea ofizial egin zen erakundeko kideek urtero egin zuten bileran, eta Marisol Garmendia Ekonomia Bultzatzeko zinegotzia bertaratu zen, Donostia Sustapenaren ordezkari gisa. Felipe VI.a erregeak zuzendu zuen topaketa, Ohorezko Lehendakari gisa.

Donostia Sustapena Fundazioarekin bat egiteak indartu egiten du hiriak berrikuntzaren alde egiten duen apustua, Donostiaren etorkizuneko garapenerako funtsezko motorra den aldetik, eta berrikuntza, hezkuntza, teknologia eta ekonomiaren arloko aditu-sare zabal baterako sarbidea izatea ahalbidetuko dio.

Gainera, Donostiako Sustapenak kontsultak egin ahal izango ditu, lehen mailako azterlan eta informazioetarako sartzea izango du, edo sare horren esparruan erreferentzia diren eragile eta erakundeekin lankidetzeta eta proiektuak garatu ahal izango ditu. Horrek guztiak hiriaren erronkei berrikuntzaren ikuspegitik eta gizartean eragina duen ikuspegitik heltzen lagunduko du.